*Así, el Ayuntamiento elaborará el o los proyectos técnicos necesarios para ejecutar la actuación que ha de realizar en la regata Pekin, y ejecutará por sí mismo dichos proyectos, y los accesorios que resulten precisos (descontaminación de suelo, etc.). A estos efectos, el Ayuntamiento girará a la Junta de Concertación los importes en que incurre al ejecutar este tipo de intervenciones, aunque en todo caso, a la aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación la Junta deberá hacer frente al abono íntegro del importe pactado en el Convenio de 2018, importe al que se descontarán los abonos parciales que la Junta hubiera podido ir realizando a requerimiento del Ayuntamiento.*

Era berean, dokumentuko planoetan (II.4 eta II.5.1) Pekin errekan esku hartzeko moduari buruz jasotako zehaztapenak jarri gabekotzat joko dira.

De la misma forma, las precisiones contenidas en los planos del documento (II.4 y II.5.1) respecto a la forma de ejecución de la intervención en la regata Pekin se tendrán por no puestas.

II Gamongoa 56 Sektorea ZEPAE izendatzeko eskabidea hilabeteko epean aurkeztuko zaio Udalari, MPAU hau behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita, betiere Urbanizazio Proiektua behin betiko onartu aurretik, eta horretarako behar den dokumentazio teknikoa erantsiko zaio.

II En el plazo de un mes, a contar desde la aprobación definitiva de este MPAU, y en todo caso antes de la aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización, se presentará ante el Ayuntamiento la solicitud de declaración del Sector 56 Gamongoa como ZEPAE, adjuntando la documentación técnica precisa para ello.

III Eraikinen lehen erabilerarako lizentzia lortzeko,

III La obtención de la licencia de primera utilización

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

egikaritze-fase bakoitzaren arabera dagokion urbanizazio-azpieremuari dagokion urbanizazioa benetan gauzatu eta martxan jarri beharko da, bai eta dagokion eremuaren urbanizazio osagarria benetan gauzatu ere, finkatutako baldintzetan.

de las edificaciones queda supeditada a la efectiva ejecución y puesta en servicio de la urbanización correspondiente al subámbitos de urbanización que le corresponda conforme a cada una de las fases de ejecución, así como a la efectiva materialización de la urbanización complementaria al respectivo ámbito, en las condiciones fijadas.

IV Hitzarmen Batzordeak, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasita 5 eguneko epean, eranskin bat aurkeztu beharko du. Eranskin horretan, jarduketaren xede diren ondasun eta eskubideen titularren zerrenda jasoko da, eta, bertan, UJM hau onartzeko prozesuan jakinarazpenak egin ahal izateko behar besteko informazioa jasoko da.

IV La Junta de Concertación deberá presentar en el plazo de 5 días, a contar a partir de la recepción de la notificación de este acuerdo, un anexo en el que se contenga la relación de titulares de los bienes y derechos objeto de la actuación con la información suficiente para que se puedan practicar las notificaciones en el proceso de aprobación de esta MPAU.

V Hitzarmen Batzordeak, erabaki honen jakinarazpena jaso eta bost eguneko epean, laburpen bat aurkeztu beharko du. Laburpen horretan, UJMren edukiak jasoko dira, eta, gutxienez, honako hauek jasoko dira: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa, eremuari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna, jarduketa-sistema, aurrekontua eta urbanizazio-obrak eta, hala badagokio, eraikuntza-obrak gauzatzeko programazioa. Aurkezpena word edo odt formatuan egingo da, elebiduna eta bi zutabeko taula batean.

V La Junta de Concertación deberá presentar en el plazo de 5 días a contar a partir de la recepción de la notificación de este acuerdo un extracto en el que se recojan los contenidos de la MPAU, entre los que se incluirá, como mínimo, la identificación del ámbito, su clasificación y calificación, la edificabilidad urbanística atribuida al ámbito, el sistema de actuación, el presupuesto y la programación de la ejecución de las obras de urbanización y, en su caso, de edificación. La presentación se realizará en formato word u odt, bilingüe y en una tabla de dos columnas.

2.- Jendaurrean jartzeko 20 eguneko epea irekitzea, dagozkion alegazioak egin ahal izateko.

2º.- Proceder a la apertura de un período de información pública por el período de 20 DIAS, al objeto de que se deduzcan las oportunas alegaciones.

Horretarako, iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, eta bertan jasoko dira Urbanizatzeko Jarduketa Programaren edukiaren funtsezko elementuak.

A tal efecto, se insertará anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que contendrá los elementos esenciales del contenido del Programa de Actuación Urbanizadora.

Era berean, iragarkia argitaratuko da lurralde historikoan gehien saltzen den egunkarietako batean, iragarki-taulan eta Errenteriako Udalaren

Igualmente, se publicará anuncio en uno de los periódicos de mayor circulación del Territorio Histórico, en el tablón de anuncios y en la Sede

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

egoitza elektronikoan (www.errenteria.eus).

Electrónica de este Ayuntamiento de Errenteria (www.errenteria.eus)

3.- Erabaki hau programaren sustatzaileei jakinaraztea, bai eta jarduketak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei ere, aipatutako 20 eguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, beren eskubide eta interesen alde egokitzat jotzen dutena alegatu edo adieraz dezaten.

3º.- Notificar el presente acuerdo a los promotores del Programa, así como a los titulares de bienes y derechos afectados por la actuación para que en el referido plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación del presente acuerdo, aleguen o manifiesten lo que estimen en defensa de sus derechos e intereses.

**6. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. VII Plangintzaldia (2023-2027) onarpena. (2023ZBAR0003)**

**6. Aprobación de los criterios para el uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria. VII Periodo de planificación. (2023ZBAR0003)**

Errenteriak azken urteotan aniztasun linguistiko-kultural zabala jaso du. Eta Udalak aniztasun horren errekonozimendua egin nahi du bizikidetzaren izenean; izan ere, herriko hizkuntza aniztasuna aberastasun gisa ulertzen du eta aitortza egin nahi die hizkuntza guztiei, betiere euskara, bertako hizkuntza, aniztasun horren erdian jarriz.

Errenteria ha acogido en los últimos años una amplia diversidad lingüístico-cultural. Y el Ayuntamiento quiere reconocer esa diversidad en nombre de la convivencia, porque entiende la diversidad lingüística del pueblo como una riqueza y quiere reconocer a todas las lenguas, poniendo en el centro de esa diversidad el euskera como lengua propia de Errenteria.

Hori horrela izanik ere, onartzea proposatzen dugun agirian Errenteriako bi hizkuntza ofizialen erabilera arautuko du Udalak, bere jardun eremu osoan herritarren bizikitza demokratikoa bermatzeko.

En el documento que presentamos para su aprobación, el Ayuntamiento regulará el uso de las dos lenguas oficiales de Errenteria, a fin de garantizar la convivencia democrática de la ciudadanía en todo su ámbito de actuación.

Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak xedatutakoaren arabera, euskara eta gaztelania, biak, Euskadiko hizkuntza ofizialak dira. Hori horrela, erakundeei dagokie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, baita hizkuntza ezagutzeko beharrezko neurriak xedatu eta arautzea ere.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía, el euskera y el castellano son las lenguas oficiales de Euskadi. En este sentido, corresponde a las instituciones garantizar y regular el uso de ambas lenguas, así como disponer y regular las medidas necesarias para su conocimiento.

Euskara Euskal Herriko ondarea da. Beraz, biztanle guztien elementu bateratzaile izan behar duenez, Udala herritar guztientzat hala izan dadin saiatuko da.

El euskera es también patrimonio de Euskal Herria. Por tanto, como elemento integrador de toda la población, el Ayuntamiento procurará que así sea para toda la ciudadanía.

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak Euskal Herriko Komunitate Autonomoko administrazio publikoetan euskararen erabilpena eta normalizazioa arautu zuen.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ondorioz, administrazio bakoitzari dagokio, bere jarduera esparruan, arau horiek indarrean jarri eta beharrezko bitartekoez arduratzea.

Corresponde a cada administración, en su ámbito de actuación, atender a la puesta en vigor de dichas normas y la atención de los medios necesarios para ello.

Hori kontuan hartuta, Errenteriako Udalak 1997ko martxoaren 18an egindako Osoko Bilkuran *Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantza* onartu zuen.

En sesión plenaria celebrada el 18 de marzo de 1997 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó la *Ordenanza Municipal para la Normalización y Promoción del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria*.

Ordenantzak Udalaren jardunaren esparru guztiak arautzen ditu. Besteak beste, hauek:

La Ordenanza regula, entre otros, estos ámbitos de actuación del Ayuntamiento:

- 3. artikulua: Errenteriako Udalak euskaraz egingo du, barne funtzionamenduan nahiz hiritarrekin harremanetan eta instituzioekin oro har, betiere indarrean dauden arau eta legeen arabera eta Ordenantzan jasotako xedapenei jarraituz.

- artículo 3: El ayuntamiento de Errenteria hará uso del euskera, tanto en el ámbito de funcionamiento interno como en el de las relaciones con la ciudadanía y el conjunto de organismos e instituciones, con arreglo a las leyes y normas vigentes dictadas con carácter general y a las disposiciones recogidas en la ordenanza.

- 4. artikulua: herritarrek bi hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dutenez, Udalak espreski, besteak beste, ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz zein gaztelaniaz edukitzeko eskubidea aitortzen die.

- artículo 4: la ciudadanía de Errenteria tiene derecho a conocer y usar las dos lenguas oficiales oralmente y por escrito y, por ello, el Ayuntamiento les reconoce, entre otros, el derecho a mantener relaciones orales y escritas en euskera y castellano.

- 6. artikulua: Udalak beharrezko neurriak hartuko ditu aipatu artikulu horietan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen. Beraz, euskara, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza ez ezik Errenteriako Udaleko lan-hizkuntza ere izango da. Udalak definitutako gune elebidunetan eguneroko lana euskaraz ere egingo da, horretarako beharrezko neurriak hartuta.

- artículo 6: El Ayuntamiento adoptará las medidas necesarias para que los derechos reconocidos en los citados artículos sean reales y efectivas. Por tanto, el euskera, además de lengua de servicio a la ciudadanía, será lengua de trabajo del Ayuntamiento. El trabajo diario en las áreas bilingües definidas por el Ayuntamiento se realizará también en euskera, adoptando las medidas necesarias para ello.

- 12. artikulua: Euskara soilik erabiltzeko esparruak:

- artículo 12: Ámbitos de uso exclusivo del euskera:

Ordenantza bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu, babestu eta ondoren etorri diren erabaki eta arauen

La Ordenanza es la base de los acuerdos y normas que posteriormente se han venido adoptando para

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

oinarria da.

2003ko martxoaren 28an Udalbatzak 1. Euskararen Erabilera Plana onartu zuen. Planak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta horiek gauzatzeko eman beharreko urratsak ezarri zituen. Harrez geroztik, 86/97 Dekretuaren babespean, bi hizkuntza ofizialen erabilera arautu eta onartu du Udalak eta 2011, 2013, eta 2018an, hurrenez hurren, bidezko planen bidez gauzatu ditu irizpideok.

2018-2022 VI. Plangintzaren indarraldia amaitu berri da, eta, 86/1997 Dekretuaren arabera, Administrazioak epe berrirako (2023-2027) hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra du. Lan horri ekin baino lehen, komenigarria da Errenteriako Udalak 2018an onartutako hizkuntza irizpideak berrikusi eta egokitzea. Izan ere, azken urteotan egindako lanaren ondorioz irizpide horietako batzuk zaharkituta gelditu dira, adibidez, edo/eta Udalak jarritako helburuak areagotu daitezke, oinarri genuen araudi markoari euskararen erabilera sustatzeari babes juridikoa eman dioten legeak eman direla ahaztu gabe. Hala nola:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Tokiko Legeak eta berau garatzeko 179/2019 Dekretuak eskumenak aitortzen dizkiete tokiko administrazioei bere jardun eremuan euskararen aldeko “ekintza argiak” martxan jarri eta euskara “gero eta gehiago erabiltzeko”.
- 2016ko abenduaren 17an Kontseiluak Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu eta aitortu zuen hizkuntza-eskubideak oinarrizko giza eskubideak direla.

Onartzea proposatzen den irizpide multzoa lege horien ikuspegitik landu da, irizpide berriak onartzerakoan legearen berme osoz jarduteko. Nolanahi ere, bizirik dagoen dokumentua izanik, aurreikusi behar da oraingo hau ez dela azken egokitzapena izango, helburuak betetzen diren

garantizar, proteger y garantizar el uso de las dos lenguas oficiales.

El 28 de marzo de 2003 el Pleno del Ayuntamiento aprobó el 1º Plan de Uso del Euskera. El Plan estableció los criterios de uso de las lenguas oficiales y los pasos a seguir para su ejecución. Desde entonces, al amparo del Decreto 86/97, el Ayuntamiento ha regulado y aprobado el uso de las dos lenguas oficiales en 2011, 2013 y 2018 y se ha materializado en los planes correspondientes.

Acaba de finalizar el periodo de vigencia del VI. Periodo de planificación (2018-2022) y según el Decreto 86/1997 la Administración debe aprobar el plan de normalización del uso de las lenguas oficiales para el nuevo periodo de planificación (2023-2027). Antes de acometer este trabajo es conveniente revisar y adecuar los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento de Errenteria en el año 2018, ya que el trabajo realizado en los últimos años ha hecho que algunos de estos criterios hayan quedado obsoletos, por ejemplo, y/o que los objetivos marcados por el Ayuntamiento puedan verse incrementados, sin olvidar que se han dictado leyes que han dado cobertura jurídica al marco legal que teníamos en base a la promoción del uso del euskera. Por ejemplo:

- La Ley 2/2016 y el Decreto 179/2019 atribuyen competencias a las administraciones locales para poner en marcha “acciones claras” a favor del euskera y para “utilizar cada vez más el euskera” en su ámbito de actuación.
- El Protocolo para garantizar los Derechos Lingüísticos, de 17 de diciembre de 2016 reconoce que los derechos lingüísticos son derechos humanos fundamentales.

Los criterios que se presetnan han sido elaborados al amparo de dicha normativa, al objeto de actuar con plenas garantías en la adopción de nuevos criterios. En cualquier caso, al tratarse de un documento vivo, se debe prever que esta no sea la última adaptación y que a medida que se vayan cumpliendo los objetivos

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

neurrian irizpideak moldatzen joan beharko delako.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak izeneko dokumentuak, ondorengo jardun esparruak arautzea du helburu:

1. ARDATZA. Zerbitzu-hizkuntza

1. Erakundearen irudia: errotulazio eta informazioa, toponimia, marketina, jendaurreko ekitaldiak eta ingurune digitala.

2. Herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanak zerbitzua ematerakoan.

2. ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

3. Barne komunikazioa eta lan tresnak: laneko hizkuntza paisaia, informaziorako eta komunikazioarako tesnak, barne mailako idatziak, euskarazko unitateak eta baliabide informatikoak.

4. Pertsonen kudeaketa: langile berriak eta laneko prestakuntza.

5. Kanpo ahozko zein idatzizko harremanak: administrazio, erakunde pribatu eta aliatu eta erakunde kolaboratzaileekin.

6. Kudeaketa sistema: hizkuntzen kudaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea eta zerbitzu eta produktuak kontratatzea.

Hizkuntza irizpideek euskararen erabilera normalizatu eta herritarren eta langileen hizkuntza eskubideak bermatzea ez ezik administrazio publiko batean lan egiteak dakartzan betebeharrak ere jasotzea dute helburu. Tokiko Gobernu Batzarrak Plangintzaldi berrirako irizpideak onartuta, langile eta interes taldeei jakinaraziko zaizkie, bi hizkuntza ofizialetan lan egin dadin beharrezkotzat jotzen da jakitea nola erabili behar diren hizkuntzak, hau da zer egin behar den hizkuntza batean eta zer bietan.

Horiek horrela, Errenteriako Udalak eguneroko zereginetan dituen komunikazio harreman motak

deberán adaptarse a los nuevos escenarios.

El documento Criterios de uso de las lenguas oficiales tiene por objeto regular los siguientes ámbitos de actuación:

1.- EJE. LENGUA DE SERVICIO

1.- Imagen corporativa: rotulación, información, toponimia, marketing, actos públicos y entorno digital.

2.- Relaciones orales y escritas con la ciudadanía en la prestación del servicio.

2.- EJE: LENGUA DE TRABAJO

3. Comunicación interna y herramientas de trabajo: paisaje lingüístico vinculados al trabajo, información y herramientas de comunicación, escritos de relaciones internas, departamentos en euskera y recursos informáticos.

4. Gestión del personal: personal de nueva incorporación y formación profesional.

5.- Relaciones externas orales y escritas: administraciones, entidades privadas, entidades aliadas y colaboradoras.

6. Sistema de gestión: integración de la gestión lingüística en el sistema general de gestión y contratación de servicios y productos.

Los criterios lingüísticos además de normalizar el uso del euskera, tienen como objetivo garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y los y las los trabajadoras, así como recoger las obligaciones que conlleva trabajar en la administración pública. Una vez aprobados en la Comisión de Gobierno Local se darán a conocer a toda la plantilla y grupos de interés, ya que, en definitiva, si se quiere trabajar en las dos lenguas oficiales, es necesario saber en qué casos deben usarse los idiomas, es decir, qué tareas deben hacerse en una o en ambas lenguas.

Y para ello, teniendo en cuenta el tipo de relaciones comunicativas que el Ayuntamiento de Errentería

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

kontuan izanda (herritarrekikoak, beste administrazio eta erakunde batzuekikoak eta Udal barnean langile eta politikoen artekoak), ahoz zein idatziz, hizkuntzen erabilera hiru modutan definitu da, hala nola zerbitzu-hizkuntza, harremanetarako hizkuntza eta lan-hizkuntza, eta, besteak beste, helburu hauek nabarmendu nahi dira:

1. Zerbitzu-hizkuntzaren eta harremanetarako hizkuntzaren helburuak ahaztu gabe, plangintza berriari ekiterakoan ahalegin berezia egin nahi dugu lan-hizkuntzaren esparruan.

Gero eta gehiago dira euskaraz lan egiteko gai diren langileak, baita ordezkari politikoak ere, eta aukera hori baliatu beharra dago.

Administrazioak sortzen dituen testuen helburuetako bat komunikazioa bermatzea da, eta, hori dela-eta, dokumentuak defektuz bi hizkuntzetan bideratzen dira neurri handi batean, eta ez da kontuan hartzen dokumentu edo zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen hizkuntza hautua bezalako faktore garrantzisua. Administrazioa elebiduna izan behar izateak ez du esan nahi nahitaez agiri guztiak bi hizkuntzetan eman behar direnik, eta horretan proposatzen da aurrerabide handiena, alegia, barne zein kanpo dokumentazioa sortzerakoan beste irizpide bat hartzea kontuan: hartzailearen hizkuntza hautua.

Hori horrela, nahitaez ele bietan sortu behar diren testuen ondoan hainbat komunikazio euskara hutsez bideratzeko proposamena egiten da, hartzailearen hizkuntza hautuak edo gaitasunak horretarako aukera ematen digunean. Euskararen erabilera izan da aurreko plangintzaren erronka eta VII. Plangintzan ere erabilera izango da erronka nagusienetako bat.

Euskararen erabilera normalizatzeko unean hainbat arrazoik urratsak ematera bideratzen gaituzte: administrazioak eredu izateaz gain, kalitatezko zerbitzua eman eta eraginkorra izan behar du.

mantiene en el quehacer diario (ciudadanía, otras administraciones e instituciones y entre personal y políticos/as dentro del Ayuntamiento), tanto oralmente como por escrito, se ha definido el uso de las lenguas como lengua de servicio, lengua de relación y lengua de trabajo y se han planteado, entre otros, los siguientes objetivos:

1. Sin olvidar los objetivos de la lengua de servicio y de relación, a la hora de abordar la nueva planificación queremos hacer un esfuerzo especial en el ámbito de la lengua de trabajo

Cada vez son más quienes tienen la capacidad de trabajar en euskera, tanto el personal como los y las representantes políticas, y hay que aprovechar esta oportunidad.

Uno de los objetivos de los textos que genera la Administración es garantizar la comunicación, por lo que los documentos en gran medida se canalizan por defecto en las dos lenguas, sin tener en cuenta un factor tan importante como es la opción lingüística de las personas receptoras de los documentos o servicios. Pero el hecho de que la Administración deba ser bilingüe no implica necesariamente que todos los documentos deban ser redactados en las dos lenguas, por lo que se propone que se tenga en cuenta otro criterio a la hora de generar la documentación tanto interna como externa: la opción lingüística de la persona receptora.

En este sentido, se propone que, junto a los textos que necesariamente han de ser producidos en bilingüe, determinadas comunicaciones se canalicen únicamente en euskera, en concreto cuando la opción lingüística o la capacidad lingüística de la persona receptora lo permita. El uso del euskera ha sido el reto de la planificación anterior y también lo será en el VII: periodo de planificación.

Diversas razones nos llevan a dar pasos en el proceso de normalización del uso del euskera. La Administración, además de servir de ejemplo y ofrecer un servicio de calidad y ser eficiente.

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

Hortaz, Udalaren hizkuntza politikaren baitan zerbitzu-hizkuntzan, lan harremanetarako hizkuntzan eta lan-hizkuntzan aurreko guztia gauzatu dadin ahalbidetuko duten neurriak jaso dira.

Por tanto, en el marco de la política lingüística del Ayuntamiento, se han recogido medidas que posibiliten la realización de todo lo anterior en la lengua de servicio, lengua de relación con otras administraciones y asociaciones y lengua de trabajo.

2. Planean parte hartuko dutenen zeregina: ordezkari politikoak eta langileak

2. Participación en el Plan de las y los políticos y el personal.

Neurri horien erdigunean, ordezkari politikoak eta langileak kokatu behar dira, nor bere zereginean.

En el centro de estas medidas se debe situar a las y los representantes políticos y al personal y otorgarles el papel que les corresponde en la consecución de los objetivos.

Hizkuntza politikaren kudeaketari dagokion atalean espreski jaso da ordezkari politikoen eginkizuna dela Udalaren jarduera guztietan irizpideak betetzea eta betearaztea eta hizkuntzen kudeaketa Udalaren kudeaketarako aginte organoetan integratu eta zeharkakotasunez lantzea.

En el apartado de gestión de la política lingüística se ha recogido expresamente que corresponde a la representación política velar por el cumplimiento de los criterios lingüísticos en todas las actividades del Ayuntamiento, integrando la gestión de las lenguas oficiales en los órganos de gobierno del Ayuntamiento, y trabajarlos de manera transversal.

Ordezkari politikoen zein langileen hizkuntza gaitasunaz baliatuta, euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egin behar du Udalak egintza eta esparru guztietan. Horri horrela, eredugarri jokatu eta hizkuntza irizpideekin koherenteak izatea dagokie batzuei zein besteei, eta Udalarekin harremanetan dauden herritarrekin, erakunde publiko eta pribatuekin eta abarrekin euskararen aldeko jarrera proaktiboa erakustea da horren adibide garrantzitsuena.

En el ejercicio de la competencia lingüística, tanto por parte de la representación política como del personal, el Ayuntamiento ha de pasar del conocimiento al uso del euskera sus acciones y ámbitos. En este sentido, les corresponde actuar como modelo y ser coherentes con los criterios lingüísticos, y mostrar una actitud proactiva a favor del euskera con la ciudadanía y entidades públicas y privadas que mantienen relaciones con el Ayuntamiento.

3. Kontratazio alorrerako proposamena

3. Medidas relativas a la contratación de servicios.

Horretaz gain, kontratazio alorrerako proposamena egin nahi da bereziki, hain zuzen ere Udalak eman ezin dituen zerbitzuak azpikontratatu egiten baititu. Udalak egiten dituen kontratazio publikoetan hizkuntza irizpideak txertatzeko prozedura du onartua. Horren arabera, kontratu publikoek nahitaez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea bete behar dute eta zerbitzuak ematerakoan enpresa adjudikazio-hartzaileek Udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bete behar dituzte herritarren eskubideak bermatze aldera, 2/2016 Toki Erakundeei buruzko Legeak, 179/2019 Dekretuak eta 86/97

El Ayuntamiento subcontrata determinados servicios por no poder atenderlos con sus propios medios. En la actualidad tiene en vigor un procedimiento para la incorporación de criterios lingüísticos en las contrataciones públicas. En este sentido, para garantizar los derechos de la ciudadanía, tal y como establecen la Ley 2/2016 de entidades locales, el Decreto 179/2019 y el Decreto 86/97, los contratos públicos están obligados al cumplimiento del régimen de doble oficialidad lingüística, por lo cual las empresas adjudicatarias deben desempeñarlos en condiciones lingüísticas similares a las que debiera

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

Dekretuak agindu bezala. Esan dezakegu kontratazio handietan, salbuespenak salbuespen, zerbitzuak zein hizkuntzatan eskaini behar diren jasotzen dela, baina zailtasunak daude betetze mailaren jarraipena egiteko, eta hori plangintzaldi honetan landu beharreko helburua da.

cumplir el Ayuntamiento en la prestación de sus servicios a efectos de garantizar los derechosde la ciudadanía. Puede decirse que en las contrataciones, salvo excepciones, se recoge el idioma en el que deben prestarse los servicios, pero hay dificultades a la hora de realizar el seguimiento de su grado de cumplimiento, y ese en un objetivo de la nueva planificación.

Horrenbestez, hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzea dute helburu. Orain artekoan bezala, bi hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko prozesuaren helmuga jasotzen dute, eta Udal departamentuen jardun orokorraren hizkuntza politikaren norabidea markatuko dute. Nolanahi ere, jasotzen diren irizpide orokor horiek abiapuntua izango dira VII. Plangintzaren barruan Normalizazio Plana (2023-2027) adostu eta onartzeko.

Por lo tanto, las pautas de uso de las lenguas oficiales tienen por objeto regular el uso de las dos lenguas oficiales, marcan los objetivos del Ayuntamiento en el proceso de normalización del uso de las dos lenguas y el rumbo de actuación de los departamentos municipales. En todo caso, los criterios generales que se recogen serán el punto de partida para acordar y aprobar el VII Plan de Normalización (2023-2027).

Esan beharrik ez dago helburu horiek lorgarriak izan daitezen langileen parte-hartzea eta politikoen babes eta inplikazioa bilatuko dela. Hizkuntza irizpideak definitzeko garaian, zeharlerrotasunez jokatu eta kontrastea eskatu zaie irizpideak inplementatzeko garaian zeresan zuzena duten departamentuei, hala nola, Lege Aholkularitza, Berdintsuna, Informatika, Giza Baliabideak, Komunikazioa, Kontratazioa eta abar, eta, 86/97 Dekretuaren 24. atalari jarraiki, Langileen komiteari ere aholku eskatu zaio. Era berean, 2023.04.26an Udal Hizkuntza Politikarako Aholku Kontseiluko kideei aurkeztu zaizkie.

Para que estos objetivos sean alcanzables se busca la participación del personal y el apoyo e implicación de la representación política. A la hora de definir los criterios lingüísticos, se ha actuado con transversalidad y se ha contrastado el documento con aquellos departamentos que tienen un papel directo en la implementación de los criterios, como Asesoría Jurídica, Igualdad, TIC, Recursos Humanos, Comunicación, Contratación, etc, y, en cumplimiento del artículo 24 del Decreto 86/97, se ha consultado al Comité de trabajadoras y trabajadores. Asimismo, el 26.04.2023 se han presentado a los miembros del Consejo Asesor de Política Lingüística Municipal.

Ekarpenak aztertu eta hizkuntza irizpideen dokumentua egokitu da.

Se han analizado las aportaciones y se adaptado el documento de criterios lingüísticos.

Azkenik, Errenteriako Tokiko Gobernu Batzarrak martxoaren 21ean onartutako Berdintasunerako III. Planarekin bat eginez, bi hizkuntza ofizialetan, ahoz zein idatziz, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek hizkera inklusiboa erabiltzea bultzatu nahi dute.

Finalmente, en consonancia con el III. Plan para la Igualdad aprobado por la Junta de Gobierno Local el 21 de marzo de 2012, los criterios de uso de las lenguas oficiales impulsan el uso de un lenguaje inclusivo, tanto oral como escrito, en las dos lenguas oficiales.

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

| ARAUDI APLIKAGARRIA | NORMATIVA DE APLICACIÓN |
|---|---|
| - Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administazioen Administrazio Prozedura Erkidearena. | - Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| - Apirilaren 7ko 2/2016 Toki Erakundei buruzko Legea | - Ley 2/2016, de 7 de abril, de Entidades Locales |
| - Maiatzaren 12ko 3/2022 Legea, Euskal Sektore Publikoarena (1. xedapen gehigarria eta 76. artikulutik 79.era) | - Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco ( Disposición adicional 1era y artículos 76 al 79) |
| - Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena | - Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local |
| - Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa (8.1.b) artikulua). | - Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (artículo 8.1.b)). |
| - Abenduaren 3ko 18/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua | - Ley Orgánica 18/1979, de 3 de diciembre, Estatuto de Autonomía del País Vasco |
| - Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzezkoa | - Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera. |
| - Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. | - Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma. |
| - 2023ko apirilaren 27ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 4/2023 Legeak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute. | - Ley 4/2023, de 27 de abril, del Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, sobre derechos lingüísticos de las Personas Consumidoras y Usuarias, reconocen a las mismas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismo públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias. |
| - 2016ko abenduaren 17ko Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena | - Desarrollo Municipal del Protocolo para la Garantía de los Derechos Lingüísticos de 17 de diciembre de 2016 |
| - Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera | - Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de |

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.

las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi.

**Errenteriako Udalak bere eskumenen baitan euskararen erabilera normalizatzeko hartutako erabakiak**

**Acuerdos adoptados por el Ayuntamiento de Errenteria dentro del marco de sus competencias**

- 1997ko martxoaren 17an Errenteriako Udalbatzak onartutako Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantza

- Ordenanza Municipal para la Normalización y Promoción del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errentería, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Errentería el 17 de marzo de 1997

- 2023ko otsailaren 22an Udal Tokiko Batzarrak onartutako 2021-2026 Plan Estrategikoa.

- Plan Estratégico 2021-2026 aprobado por el Pleno Municipal el 22 de febrero de 2023.

- 2023ko martxoaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Berdintasunerako III. Plana (2023-2031)

- III. Plan para la Igualdad (2023-2031) aprobado por la Junta de Gobierno Local el 21 de marzo de 2023 .

Hori da onartzeko aurkezten den hizkuntza ofizialak erabiltzeko dokumentuaren testuingurua. Irizpide orokor horiek abiapuntua izango dira VII. Plangintzaren barruan Normalizazio Plana (VII. Plangintzaldia: 2023-2027) elaboratu eta onartzeko, kontuan hartuta euskara eta gaztelania Errenteriako Udaleko hizkuntza ofizialak direla, irizpide hauei jarraiki planaren helburua dela Errenteriako Udalak herritar nahiz erakunde publiko eta pribatuekin dituen harremanetan euskara ohiko hizkuntza izan dadin, baita barrurako lan-hizkuntza ere.

Este es el contexto que ha servido de base para la definición de los criterios lingüísticos que se presentan para su aprobación. Serán el punto de partida para la elaboración del Plan de Normalización (7º Periodo de Planificación: 2023-2027), y, teniendo en cuenta que el euskera y el castellano son ambas las dos lenguas oficiales del Ayuntamiento de Errenteria, en base a estos criterios, el objetivo del plan es la normalización del uso del euskera como lengua habitual en las relaciones que mantiene con la ciudadanía e instituciones públicas y privadas y como lengua de trabajo interno.

2023ko maiatzaren 4an Arantxa Zabala Udal Hizkuntza Politikako teknikariak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen gaineko txostena eman du.

El 4 de mayo de 2023 la técnica de Política Lingüística Municipal, Arantxa Zabala, emite informe sobre los criterios de uso de las lenguas oficiales.

2023ko maiatzaren 17an Nagore Sarasola idazkari orokorrak txosten juridikoa eman du.

El 17 de mayo de 2023 la Secretaria General, Nagore Sarasola, emite informe jurídico.

Hizkuntza Politikako delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Idazkari Orokorrak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo de la Delegada de Política Lingüística y la conformidad dada por la Secretaria General a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en uso de las competencias delegadas por la alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

ERABAKI DU

1. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. VII. Plangintzaldia (2023-2027) irizpideak eta eranskinak onartzea.

2. Irizpideak udal web gunean argitaratzea.

3. Udal departamentu guztiei berri ematea.

ACUERDA

1. Aprobar los "Criterios de uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria. 7º Periodo de Planificación (2023-2027)" y sus anexos.

2. Publicacar los criterios en la página web municipal.

3. Informar a todos los departamentos municipales.

**7. Shensama elkartea Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko eskaera. (2023IIGE0003)**

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribatua egoteko baldintzak bete behar dira:

1.- Errenteriako udalerrian lankidetza-lanak egitea.

2.- Eusko Jaurlaritzen Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatua egotea.

3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

2023ko martxoaren 28an F.G.E., "Shensama A.E.P.T.M. elkartea" ordezkatuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Kultura saileko teknikari arduradunaren 2023ko maiatzaren 18ko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bat

**7. Inscripción de la asociación Shensama en el registro municipal de asociacionesde asociaciones. (2023IIGE0003)**

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria.

2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha 28 de marzo de 2023, F.G.E., en representación del "Centro Shensama A.E.P.T.M.", solicita ser inscrita en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Visto el informe del técnico responsable del departamento de Cultura, de fecha 18 de mayo de 2023, en el que se indica que la documentación

ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6

dator eta elkarte horren inskripzioaren aldeko txostena egiten du.

Kulturako zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Kulturako teknikari arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Vista la propuesta de acuerdo de la concejala delegada de Cultura y la conformidad dada por el técnico responsable de Cultura a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello en el ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ERABAKI DU:**

1.-“Shensama A.E.P.T.M. elkartea” Herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzailetzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

**ACUERDA**

1.- Proceder a la inscripción del “Centro Shensama A.E.P.T.M.” en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2023ko maiatzaren 24a

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:30 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 24 de mayo de 2023

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU70769409-810a-409a-b643-d39e0ba17cd6**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023IGOB0011-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |
| --- | --- |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Orokorra
Data / Fecha: 2023/05/24 12:36:59